

Kutxa Fundazioaren larrialdiko laguntza ezohikoaren oinarriak COVID-19ak sortutako krisiaren aurrean

01 Aurrekariak

Kutxa Fundazioa, Gipuzkoa garatzen laguntzen duten gizarte eta kultura proiektuak bultzatzeko eta laguntzeko erreferentziazko erakundea da.

Covid-19ak eragindako osasun **krisiari** eta Gipuzkoako gizartean horrek dituen ondorio soziosanitarioei erantzuteko, Kutxa Fundazioak deialdi berezi bat jarri du abian krisiari larrialdiko erantzuna ematen ari diren **gizarteko ekimen zibilei** laguntzeko.

02 Helburua

Ezohiko deialdi honen xedea baliabide ekonomikoen bidez Gipuzkoan garatzen ari diren **irabazi asmorik gabeko** ekimenei laguntzea da, Covid-19ak eragindako **ondorioei zuzenean** erantzuteko, honako esku-hartze eremu hauetan:

- Etxez etxeko zainketa esparrua, adineko pertsonen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrei erantzuteko.
- Gizarte babeseko eremua, arriskuan dauden edota gizartean bazterturik dauden pertsonen beharrei erantzuteko, bereziki emakumeei dagokienez.
- Haur eta familiaren esparrua, gizartean eta hezkuntzan desabantailan edo gizartearen ahultasunean dauden haur eta gazteen beharrei erantzuteko.

03 Irismena

Aparteko deialdi honek 300.000 euroko **zuzkidura du** gehienez, eta balorazioan puntu gehien lortzen **dituzten 10 proiektuei gehienez 30.000 euro esleituko zaizkie**.

04 Exekuzio-aldia

Aurkezten diren ekimenei deialdi hau argitaratzen den egunean **egon behar dute martxan**, eta 2020ko **irailaren 30 arte** burutuko dira gehienez.

05 Bete beharreko baldintzak

Deialdi honetara Kutxa Fundazioaren laguntza plataforman alta eman duten eta dokumentazioa balioztatuta duten irabazi asmorik gabeko erakundeak aurkeztu daitezke.

06 Eskaerak aurkeztea

Interesa duten entitateek plataforma barruan prestatutako galdetegi bati erantzunez aurkeztu beharko dute eskaera. Galdetegiak atal hauek izanen ditu:

- Proiektuaren izenburua.
- Hasteko eguna eta egiteko epea.
- Esku-hartzearen helburua.
- Orain arte egindako eta aurreikusitako jarduerak.
- Esku hartzeko eremua eta norentzat zuzenduak diren jarduerak.
- Espero den eragina / Esku-hartzearen irismena (onuradunen kopurua eta profila; eremu geografikoa).
- Proiektua garatzeko taldea (bolondresak barne, aurreikusita badago).
- Lankidetzak
- Aurrekontua eta justifikazio ekonomikoa.

07 Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea **apirilaren 2an (osteguna)** hasiko da, 09:00etan, eta 2020ko **apirilaren 8an 14:00etan bukatuko da.**

08 Balorazio-irizpideak

Lehentasuna duten hiru ildoei zuzenean lotutako eta COVID-19 delakoaren ondoriozko krisiari erantzuten dioten ekimenak bakarrik baloratuko dira.

Aurkeztutako proiektuak **agintari eskudunek krisia kudeatzeko emandako ohar eta gomendioekin** bat etorri behar dira.

Baldintza horiek betetakoan, proiektu edo ekimenen balorazioa irizpide hauen arabera egingen da:

- Ekimena erakunde eskudunekin koordinaturik egotea, ahaleginak ez bikoizteko edo erantzun ez koordinatuak saihesteko.
- Onuradun kopuru esanguratsu batera iristea eta COVID-19 krisiaren aurrean kalterik handiena duten eremu geografikoak estaltzea.
- Bolondresen parte hartzea sustatzea.
- Berdintasun eta genero irizpideak txertatzea.

09 Ebazpena

Deialdi honen ebazpena presazkoa izanen da, deialdia itxi eta gehienez ere 15 eguneko epean.

Kutxa Fundazioak ebazpena jakinaraziko dio parte hartzen duen erakunde bakoitzari, eta haren web orriaren bidez ere argitara daiteke.

Laguntzaren esleipendun izan diren entitate eskatzaileek astebete izanen dute gehienez ere laguntza onartzeko.

10 Kutxa Fundazioaren ekarpen ekonomikoa

Kutxa Fundazioak gehienez ere 30.000 €-ko ekarpen ekonomikoa onartuko du entitate bakoitzarentzat.

Zenbatekoa ez da proiektuaren zenbateko osoa edo aurrekontua baino handiagoa izanen.

Ekarpen ekonomikoa planteatutako esku-hartzearekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko aurreikusten da, eta argi eta garbi azaldu beharko dira estali nahi diren beharrak, aurreikusitako helburuak eta emaitzen lorpenak. Laguntza ekonomikotik at gertauko dira, besteak beste, entitate eskatzailearen egoitza edo gune mantentzearen gastuak eta zorren ordainketa eragiketak.

11 Hitzarmena

Kutxa Fundazioak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatuko du laguntza jasoko duen erakunde bakoitzarekin, eta hitzarmena sinatzean eskatzailea titular gisa ageri duen Kutxabank, S.A. ren kontu batean ordainduko du ordainketa bakar baten bitartez laguntzaren zenbatekoa. Horretarako, eta beharrezkoa izanez gero, plataformako datuak eguneratu beharko dituzte entitateek.

Entitateek ekimenaren gauzatze osoa justifikatu beharko dute, hura gauzatu osteko azken memoria aurkeztuta, proiektua gauzatu dela eta izandako gastuak, proiektua garatzeko lortutako diru-sarrerak nahiz ordaindutako fakturak ere erantsita, 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

Kutxak bere gain hartzen du ordaindutako kopuruak erreklamatzeko eskubidea, baldin eta ekimena gauzatzen ez bada edo proiektua aurkeztutako proiektuari egokitzen ez bazaio.